ERANSKINA I / ANEXO I

*DIGITALIZAZIO KARTOGRAFIKOKO TEKNIKARI LAGUNTZAILEA*

1. Deitutako plazak.

Digitalizazio Kartografikoko Teknikari Laguntzaile bi (2) plaza; C taldea, C1 azpitaldea, Administrazio Bereziko eskala, Azpieskala Teknikoa, Teknikari laguntzaileak klasekoa.

2. Betekizun espezifikoak.

Izangaiek baldintza espezifiko hauek bete behar dituzte:

2.1 Titulazioa.
Deialdiko plaza bakoitzerako plazen taulan adierazitako titulu akademikoa edo baliokidetzat jotako titulua izatea, edo hura lortzeko moduan izatea eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunerako.

2.2 Euskara.
2. hizkuntza-eskakizuna (Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B2 maila) egiaztatzea, deitutako plaza hizkuntza-eskakizuna hori duen eta derrigortasun-data igarota duen lanpostu bati lotuta dagoelako.

3. Lehiaketako merezimenduen balorazioa.

Gehienez ere 40 puntu lortu ahal izango dira, honela banatuta:

- Lan-esperientzia: gehienez, 32 puntu.

-Prestakuntza eta lan-poltsetan izatea: gehienez, 8 puntu.

A) ESPERIENTZIA PROFESIONALA

Lanbide-esperientziagatik gehienez 32 puntu lortu ahal izango dira.

a) Donostiako Udalean eta haren erakunde autonomoetan egindako zerbitzuak, Digitalizazio Kartografikoko Teknikari Laguntzaile plazari dagozkion lanpostuetan (C taldea, C1 azpitaldea): gehienez 32 puntu, hileko 0,45 puntu.

*TÉCNICO/A AUXILIAR DE DIGITALIZACIÓN CARTOGRÁFICA*

1. Plazas convocadas.

Se convocan dos (2) plazas de Técnico/a Auxiliar de Digitalización Cartográfica perteneciente al grupo C, Subgrupo C1, Escala de Administración Especial, Subescala Técnica, Clase Técnicos auxiliares.

2. Requisitos específicos.

Las personas aspirantes deberán reunir los siguientes requisitos específicos:

2.1 Titulación.
Estar en posesión del título académico o título declarado equivalente señalado en el cuadro de plazas para cada una de las plazas objeto de la convocatoria, o en condiciones de obtenerlo en la fecha en que termine el plazo de de presentación de solicitudes.

2.2 Euskera.
Acreditar el perfil lingüístico 2 (nivel B2 del Marco Europeo Común de Referencia para las Lenguas), ya que la plaza convocada está asociada a un puesto de trabajo con dicho perfil lingüístico, con fecha de preceptividad vencida.

3. Valoración de los méritos del concurso.

Se podrá obtener una puntuación máxima de 40 puntos, con la siguiente distribución:

- Experiencia profesional: máximo de 32 puntos.

- Formación y pertenencia a bolsas de trabajo: máximo de 8 puntos.

A) EXPERIENCIA PROFESIONAL.

Por la experiencia profesional se podrá obtener una puntuación máxima de 32 puntos.

a) Servicios prestados en el Ayuntamiento de San Sebastián y sus organismos autónomos en puestos de trabajo correspondientes a la plaza Técnico/a Auxiliar de Digitalización Cartográfica (grupo C, subgrupo C1): máximo de 32 puntos a razón de 0,45 puntos por mes.

EK\CV GAO-I-2022-08570

b) Donostiako Udalean eta haren erakunde autonomoetan egindako zerbitzuak, deialdiko plazetan ez den beste batzuetan: gehienez 8 puntu, 0,12 puntu hilabeteko.

c) Donostiako Udala eta haren erakunde autonomoak ez diren beste udal administrazioetan egindako zerbitzuak, deialdiko plaza bezalako edo haren balio bereko besteren batean (C taldea, C1 azpitaldea): gehienez 22 puntu, 0,30 puntu hilabeteko.

d) Beste administrazio publiko batzuetan egindako zerbitzuak, deialdiko plaza bezalako edo haren balio berekoren batean (C taldea, C1 azpitaldea): gehienez 22 puntu, hilabete bakoitzeko 0,15 puntu.

c) eta d) ataletan lortutako puntuazioen baturak ezin izango du 22 puntu baino gehiago izan.

B) PRESTAKUNTZA ETA LAN-POLTSETAN EGOTEA.

B) atal honetan gehienez 8 puntu lortu ahal izango dira.

B. 1) Titulazio akademiko ofiziala.

Atal honetan gehienez 4 puntu lortu ahal izango dira.

4 puntu izango dira lortu nahi den lanposturako eskatzen den maila bereko edo handiagoko titulazio akademiko ofiziala izatea. Maila berekoa bada, eskakizun gisa egiaztatutakoaz bestelako titulazioa izan beharko du; izan ere, ez da meritu gisa kontuan hartuko betekizuna egiaztatzeko kontuan hartzen den titulua.

B. 2) Donostiako Udalaren lan-poltsetan egotea.

Atal honetan gehienez 4 puntu lortu ahal izango dira.

- Donostiako Udaleko Digitalizazio Kartografikoko Teknikari Laguntzaile lan-poltsan izateagatik: 4 puntu

b) Servicios prestados en el Ayuntamiento de San Sebastián y sus organismos autónomos en plazas diferentes de la convocada: máximo de 8 puntos a razón de 0,12 puntos por mes.

c) Servicios prestados en una administración municipal diferente al Ayuntamiento de San Sebastián y a sus organismos autónomos en plaza igual o equivalente a la convocada (grupo C, subgrupo C1): máximo de 22 puntos a razón de 0,30 puntos por mes.

d) Servicios prestados en otras administraciones publicas en plaza igual o equivalente a la convocada (grupo C, subgrupo C1): máximo de 22 puntos a razón de 0,15 puntos por mes.

La puntuación máxima por la suma de las puntuaciones obtenidas en los apartados c) y d) no podrá superar los 22 puntos.

B) FORMACIÓN Y PERTENENCIA A BOLSAS DE TRABAJO.

En este apartado B) se podrá obtener una puntuación máxima de 8 puntos.

B. 1) Titulación académica oficial.

En este subapartado se podrá obtener una puntuación máxima de 4 puntos.

Se valorará con 4 puntos estar en posesión de una titulación académica oficial de nivel igual o superior a la exigida para acceder a la plaza a la que se opta. Si es del mismo nivel deberá ser una titulación distinta de la acreditada como requisito, dado que no se tendrá en cuenta como mérito el título que se considere a efectos de acreditación del requisito.

B. 2) Pertenencia a bolsas de trabajo del Ayuntamiento de San Sebastián.

En este subapartado se podrá obtener una puntuación máxima de 4 puntos.

- Por formar parte de la bolsa de trabajo de Técnico/a Auxiliar de Digitalización Cartográfica del Ayuntamiento de San Sebastián: 4 puntos.

EK\CV GAO-I-2022-08570

B. 3) Hizkuntzak. Ingelesa, frantsesa eta alemana.

Azpiatal honetan, ingelesa, frantsesa eta/edo alemana jakiteagatik 4 puntu emango dira gehienez.

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailen arabera, puntuazio hau emango da:

- B2 maila: 4 puntu.
- B1 maila: 2 puntu.

Hizkuntza bakoitzerako, egiaztatzen den mailarik altuena bakarrik baloratuko da.

B. 4) Informatikako ezagutzak.

Azpiatal honetan, IT Txartelaren ziurtapen-sistemaren bidez egiaztatutako informatika-ezagutzak baloratuko dira, eta gehienez 4 puntu lor daitezke.

Honako ziurtagiri hauek baloratuko dira:

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 edo geroagokoa.
– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 edo geroagokoa.
– Internet.
– Microsoft Access 2000/XP/2003 edo geroagokoa.
– Microsoft Outlook XP/2003/2010 edo geroagokoa.
– Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 edo geroagokoa.

Ziurtagiri horiek baremo honen arabera baloratuko dira:

- Oinarrizko mailako ziurtagiri bakoitzeko: 1 puntu.
- Maila aurreratuko ziurtagiri bakoitzeko: 2 puntu.
- Maila bakarreko ziurtagiri bakoitzeko: 2 puntu.

Modulu bereko oinarrizko maila eta maila aurreratua egiaztatuz gero, aurreratua besterik ez da baloratuko.

B. 3) Idiomas. Inglés, Francés y Alemán.

En este subapartado se valorará, hasta un máximo de 4 puntos, el conocimiento de inglés, francés y/o alemán.

En función de los niveles del Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas se otorgará la siguiente puntuación:

- Nivel B2: 4 puntos.
- Nivel B1: 2 puntos.

Para cada idioma se valorará únicamente el nivel superior que se acredite.

B. 4) Conocimientos informáticos.

En este subapartado se valorarán los conocimientos informáticos acreditados mediante el sistema de certificaciones IT Txartela, pudiendo obtener un máximo de 4 puntos.

Serán objeto de valoración las siguientes certificaciones:

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 o posterior.
– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 o posterior.
– Internet.
– Microsoft Access 2000/XP/2003 o posterior.
– Microsoft Outlook XP/2003/2010 o posterior.
– Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 o posterior.

Estas certificaciones se valorarán de conformidad con el siguiente baremo:

- Por cada certificación de nivel básico: 1 puntos.
- Por cada certificación de nivel avanzado: 2 puntos.
- Por cada certificación de nivel único: 2 puntos.

En caso de que se acredite el nivel básico y el nivel avanzado del mismo módulo, sólo se valorará el avanzado.

EK\CV GAO-I-2022-08570

Aplikazio baten bertsio berrienak baliorik gabe utziko ditu, balorazio aldetik, hura baino zaharragoko guztiak; baldin eta izangaiak lehenagoko bertsio hartan maila aurreratua lortu ez badu behintzat, maila aurreratua baloratuko da orduan eta.

4. Emakumeei lehentasunezko klausula aplikatzea.

Azken kalifikazioan berdinketa izanez gero, ez da emakumeei lehentasuna emateko klausularik aplikatuko.

5. Gaitegia

GAI KOMUNAK

1. gaia:

Kartografia. Mapak eta planoak. Orokortzea eta sinbologia. Proiekzio kartografikoak. Kartografia digitala: Raster formatua eta Formatu bektoriala. Errepresentazio-eskalaren eta errepresentatu beharreko elementuen arteko harremana.

2. gaia:

UTM. Proiekzioa. Ordu eremuak eta koordenatuak. Donostiako balioak. ETRS89 eta ED50 erreferentzia-sistemak. Funtsezko parametroak. 1:500 kartografia. Ezaugarri nagusiak.

3. gaia:

Ordenagailuz lagundutako errepresentazio grafikoa. Bistaratze-fitxategiak (pdf eta jpg) eta edizio-fitxategiak (dwg). Bistaratzeko eta neurtzeko informatika-tresnak erabiltzea (dwg viewers).

4. gaia:

Informazio geografikoko sistemak. Definizioa eta osagaiak. CADen eta GISen arteko aldeak. Mapak, datu kartografikoen base gisa. GIS batean inplementatu daitezkeen datu-iturriak. Datuak GIS batean antolatzea, biltegiratzea eta ustiatzea. Aplikazioak.

5. gaia:

Eredu bektoriala. Primitibo geometrikoak eta topologikoak. Eragiketa espazialak. GIS bektorial baten ustiatze-funtzioak.

6. gaia:

Datu Espazialen azpiegiturak. D IDE baten arkitektura. Donostiako Geoataria: GeoDonostia. Mapen web-zerbitzuak (WMS, WMTS). Eragiketak eta parametroak. Zerbitzu horiek GeoDonostian aplikatzea.

7. gaia:

Autodesk Map. Kartografia kudeatzea, topologia, objektu-datuak, kanpoko datuekiko konexioak. CAD informazioa

Las certificaciones de una aplicación de versión posterior anularán las versiones anteriores, salvo que en la anterior versión la persona aspirante haya obtenido el nivel avanzado, en cuyo caso, se valorará este último.

4. Aplicabilidad de la cláusula de prioridad a las mujeres.

En caso de empate en la calificación final, no será de aplicación la cláusula de prioridad a las mujeres.

5. Temario

PARTE COMÚN

Tema 1:

Cartografía. Mapas y planos. Generalización y simbología. Proyecciones cartográficas. Cartografía digital: formato raster y vectorial. Relación entre la escala de representación y los elementos a representar.

Tema 2:

UTM. Proyección. Husos y coordenadas. Valores en Donostia. Sistemas de referencia ETRS89 y ED50. Parámetros esenciales. Cartografía 1:500. Características principales.

Tema 3:

Representación gráfica asistida por ordenador. Ficheros de visualización (pdf y jpg) y ficheros de edición (dwg). Uso de herramientas informáticas de visualización y medición (dwg viewers).

Tema 4:

Los Sistemas de Información Geográfica. Definición y componentes. Diferencias entre CAD y SIG. Los mapas como base de datos cartográficos. Fuentes de datos que pueden implementarse en un SIG. Organización, almacenamiento y explotación de los datos en un SIG. Aplicaciones.

Tema 5:

El modelo vectorial. Primitivas geométricas y topológicas. Operaciones espaciales. Funciones de explotación de un SIG vectorial.

Tema 6:

Infraestructuras de Datos Espaciales. Definición y componentes. Arquitectura de una IDE. El Geoportal de Donostia: GeoDonostia. Servicios web de mapas (WMS, WMTS). Operaciones y parámetros. Aplicación de estos servicios en GeoDonostia.

Tema 7:

Autodesk Map. Gestión de cartografía, topología, datos de objeto, conexiones a datos externos. Depuración de la

EK\CV GAO-I-2022-08570

araztea, GIS batean kargatzeko. Akotazioa. Orokortasunak. Erregelak, motak eta akotazio-sistemak. Geruzak, polilineak, ertzak eta itzaldura. Kanpoko erreferentziak. Kontsultak sortzea eta exekutatzea. Raster eredu espaziala. Datu- egiturak. Raster espazio-operadoreak eta ustiapen-funtzioak.

PSISZ
8. gaia:
Euskadiko Babes Zibileko Plana (LABI), testu kontsolidatua, 2015eko urtarrilaren 23koa.

9. gaia:
Donostiako Udaleko Larrialdi Plana (DULP-2016). 1. kapitulua. Lurraldearen azterketa. 3. kapitulua. Arriskuak eta kalteberatasunak. 6. kapitulua. Eraginkortasuna.

10. gaia:
Eraikuntzako Kode Teknikoa (EKT). SI1 Barne-hedapena. SI2 Kanpo-hedapena. SI3 Barruan diren pertsonak ebakuatzea SI4 Suteen aurka babesteko instalazioak. SI5 Suhiltzaileen esku-hartzea

11. gaia:
277/2010 Dekretua, azaroaren 2koa, zenbait jarduera, zentro edo establezimenduren autobabes-betebeharrak arautzen dituena, larrialdiei aurre egiteko:
- Autobabesa.

HIRIGINTZA
12. gaia:
Hirigintza-antolamendu estrukturala eta xehatua edo garapenekoa. Lurzoruaren sailkapena eta kategorizazioa. Zonakatze globala eta xehatua. Erabilera globalak. Sistema orokorrak eta sistema lokalak. Egiturazko antolamenduko eta antolamendu xehatuko tresnak. Dokumentazio grafikoa. Plano arautzaileak.

13. gaia:
Kudeaketako hirigintza-eremuak: Jarduketa Integratuak, Zuzkidura Jarduketak, Exekuzio Unitateak. Urbanizatzeko Jarduketa Programak, Birpartzelazio Proiektuak eta Desjabetze Proiektuak. Dokumentazio grafikoa.

14. gaia:
Donostiako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra. Lurralde-eremuak mugatzea: Auzoak, Hirigintza Eremuak, Azpieremuak, Areak, Sektoreak, Jarduketa Integratuko Eremuak, Zuzkidura Eremuak, Desjabetze Eremuak. Hiri-lurzorua, Urbanizagarria eta Urbanizaezina: kategoriak eta erabilerak.

información CAD para cargar en un SIG. La acotación. Generalidades. Reglas, tipos y sistemas de acotación. Capas, polilíneas, contornos y sombreado. Referencias externas. Creación y ejecución de consultas. El modelo espacial ráster. Estructuras de datos. Operadores espaciales ráster y funciones de explotación.

SPEIS
Tema 8:
Plan de Protección Civil de Euskadi (LABI), texto consolidado, de 23 de enero de 2015

Tema 9:
Plan de Emergencia Municipal de Donostia/San Sebastián (PEMDSS2016). Capítulo 1. Análisis del Territorio. Capítulo 3. Riesgos y Vulnerabilidades. Capítulo 6. Operatividad.

Tema 10:
Código Técnico de la Edificación (CTE). SI1 Propagación Interior. SI2 Propagación Exterior. SI3 Evacuación de ocupantes. SI4 Instalaciones de Protección Contra Incendios. SI5 Intervención de los Bomberos.

Tema 11:
Decreto 277/2010, de 2 de noviembre, por el que se regulan las obligaciones de autoprotección exigibles a determinadas actividades, centros o establecimientos para hacer frente a situaciones de emergencia:
- Autoprotección.

URBANISMO
Tema 12:
Ordenación urbanística estructural y pormenorizada o de desarrollo. Clasificación y categorización del suelo. Zonificación global y pormenorizada. Usos globales. Sistemas Generales y sistemas locales. Los instrumentos de ordenación estructural y pormenorizada. Su documentación gráfica. Planos normativos.

Tema 13:
Los ámbitos urbanísticos de gestión: Actuaciones Integradas, Actuaciones de dotación, Unidades de Ejecución. Los Programas de Actuación Urbanizadora, los Proyectos de Reparcelación y los Proyectos de Expropiación. Su documentación gráfica.

Tema 14:
El Plan General de Ordenación Urbana de Donostia / San Sebastián. Delimitación de los ámbitos territoriales: Barrios, Ámbitos Urbanísticos, Subámbitos, Áreas, Sectores, Ámbitos de Actuación Integrada, Ámbitos de Dotación, Ámbitos de expropiación. El suelo Urbano, Urbanizable y No Urbanizable: categorías y usos.

EK\CV GAO-I-2022-08570

15. gaia:
Donostiako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra. Hirigintza-arau orokorrak eta partikularrak. Zonakatze orokorra eta xehatua. Eraikuntzan eta lurzoruaren erabileran esku hartzea. Xedapen orokorrak. Obra-lizentziei buruzko xedapen espezifikoak.

Tema 15:
El Plan General de Ordenación Urbana de Donostia / San Sebastián. Normas Urbanísticas Generales y Particulares. Zonificación Global y pormenorizada. Intervención en la edificación y usos del suelo. Disposiciones generales. Disposiciones específicas sobre licencias de obras.

16. gaia:
Eusko Legebiltzarraren 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko legea.

- Atariko titulua. Xedea, aplikazio- eremua eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan euskal botere publikoen jarduna gidatu eta bideratuko duten printzipio orokorrak.

- II. titulua. Euskal Herri administrazioen eta agintean jarduketan genero ikuspegia integratzeko neurriak.

Tema 16:
Ley del Parlamento Vasco 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres:

- Título Preliminar. Objeto, ámbito de aplicación y principios generales que deben regir y orientar la actuación de los poderes públicos vascos en materia de igualdad de mujeres y hombres.

- Título II. Medidas para la integración de la perspectiva de género en la actuación de los poderes y las Administraciones Públicas vascas.